

Lehen seihilekoan sinatu ziren **mailegu hipotekario** guztien **%20**, **online kudeatzen** hasi ziren

%77 hazi da Kutxabanken negozio digitala

- **Urruneko kudeaketa zerbitzuak erruz igoarazi du sinadura digitalizatuaren bitartez egin ahal izan diren eragiketa eta tramiteak**
- **Bezero digitalen kopurua % 43 hazi da, duela urtebete baino 4 puntu gehiago**

2019ko abuztuaren 13an. Kutxabank baliabide teknologiko berriak eskaintzeko eta bere bezeroen esperientzia digitala hobetzeko egiten ari den lanak, **online negozioaren** hazkundera eragin zuzena eta aipagarria izan du, 2019ko lehen seihilekoan **%77 hazi** baita.

Bilakaera horretan aipatzeko da, baliabide teknologikoen bitartez kontratatzen eta kudeatzen hasten diren produktu edo zerbitzuen kopurua geroz eta handiagoa dela. Hala gertatzen da mailegu hipotekarioekin. Urteko lehen zatian Kutxabankek sinatu dituen **hipoteka guztien %20**, **online** tresna desberdinetan abiatu ziren, eta batez besteko hori %34raino igo zen hedapeneko lurraldeetan. Honekin guztiarekin, atal hau %100 hazi zen 2018ko garai berarekin alderatuta.

Mailegu pertsonalen alorrean, hazkundera **%19koa** izan zen, beste abantaila batzuen artean, telefono mugikorrarekin ordainketak formalizatu edo atzeratzeko dagoen aukerarengatik.

Urruneko kudeaketako zerbitzua Kutxabank Taldeko bezeroen eskuetan jarri den tresna erabakigarria da, eta era autonomoan, hau da, bulegoetara joan beharrik gabe, kudeatzailearen laguntzaz bete daitezkeen eragiketa eta tramitazio ugari egiteko aukera geroz eta zabalagoa ematen du. Horrela ulertzen da **sinadura digitalizatuaren** zerbitzuak izan duen **%800tik** gorako hazkundera.

Gauza bat dago argi. Telefono mugikorra dela banka digitalak erabiltzen dituen tresna teknologiko guztien artean hazkunde handiena duena. Ohituretan gertatzen ari den aldaketa honen erakusle da smartphone bitartez osatu diren **eragiketa kontableen eta ordainketen igoera, %50ekoa**. Horrela, azken sei hilabeteetan gune desberdinek eta Taldeko 'app'-ek izan dituzten **87 milioi sarreren** artean –%23 gehiago–, **%72 telefono mugikorren** bitartez egin ziren, iazko ekitaldian baino zazpi puntu gehiago.

Deigarria da, halaber, norbanakoen arteko ordainketak egin ahal izateko sortu zen **Bizum** aplikazioak duen harrera ona. Plataforma honen bidez eginiko eragiketa kontableak **%256**

hazi ziren, eta Kutxabanken bezeroen artean duen erabilera, Bankuari finantza-sistema osoan dagokion merkatu-kuotaren oso gaintik kokatzen da.

Honekin guztarekin, gaur egun bankuaren bezeroen **%43 erabiltzaile digitalak** dira, hau da, lehentasunez bankuarekin duten harremana internet bidez izan ohi da. Batez bestekoa ia 4 untu hazi da aurreko urtearen aldean.